School to School

Hezkidetzari buruzko ideia orokorrak

VicenteFerrer
Transforma la sociedad en humanidad

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE ASUNTOS EXTERIORES, UNIÓN EUROPEA Y COOPERACIÓN
Cooperación Española

Laburpena

Jaiotzen garenetik, estereotipo eta jokabide-eredu sexistak barneratzen ditugu, etxean, eskolan edo komunikabideetan ikusten ditugunetatik abiatuta. Hain dauzkagu barneratuta eredu horiek, ezen guk geuk bete ez ezik, besteek ere betetzea espero dugun, konturatu barik. Esate baterako, neskak mutilak baino otzanagoak eta lasaiagoak izatea espero da, oro har. Estereotipo horiek guztiek mugatu egiten dute haurrek pentsatzeko, sentitzeko eta jarduteko modua, eta, horren ondorioz, euren gaitasunak erabat garatzea eragozten dute.

Eskola ez da neutroa eta funtsezko eginkizuna du balioak transmititzerakoan. Gizarte bidezkoagoa eta berdinkideagoa eraikitzeko, mutilengandik eta neskengandik espero denari buruzko aurretiazko ideiak ezabatu behar dira. Horretarako, eskolan *maskulinoari* eta *femeninoari* esleitutako estereotipoak antzeman behar dira, eta beharrezko neurriak hartu behar dira halakoak gure hizkeratik eta portaeratik desagerrarazteko.

Hezkidetzak pertsonen arteko berdintasunetik heztea dakar, sexua zeinahi dela ere. Hezkidetzak haurren benetako autonomia sustatzen du, aukera-berdintasuna emanez eta desberdintasunak positiboak eta aberasgarriak direla ulertuz.

Ikasgelan hezkidetza bultzatzen duten adibideak

• **Emakumeek historian izan duten rola lantzea eta ikusaraztea,** zientzialari, politikari, artista edo kirolari gisa lortutako ekarpenak eta arrakasta azalduz.

• Berdintasunaren aldeko eta genero-indarkeriaren aurkako **egun esanguratsuak ospatzea** eskolan.

• **Sexu bakoitzari esleitutako estereotipoei buruz hausnartzea,** elezahar eta tradiziozko ipuinetatik edo lanbideen azterketatik abiatuta. Adibidez, printze bat munstro baten atzaparretatik libratuko duen zalduna izan al daiteke emakumea? Edo, era berean, zer gertatzen da aita 'etxekogizona' bada? Ba al dago ama ingeniari, mekaniko edo suhiltzailerik?

• **Etxeko esparruari soil-soilik lotutako emakumeen irudiak saihestea.** Era berean, etxeko zereginak edo zaintzari lotutakoak haurrek beren gain har ditzaten sustatzea. Adibidez, gelako maskota bat zaintzea, landare bat ureztatzea edo gela batu eta garbitzea.

• **Neskei hitza erabiltzeko denbora gehiago ematea,** baldin eta antzematen badugu ikasgelan gutxiagotan parte hartzen dutela edo esku hartzea mutilei baino gehiago kostatzen zaiela.

• **Neska-mutilek jolastokian hartzen dituzten eremuak behatzea.** Eremu berdinak dira? Neska-mutilek jolastokian partekatzen dituzten kirol-eremuak sustatzea.

• **Neska-mutilei ohituraz esleitzen zaizkien rolak ikusaraztea.** Adibidez, neskek sokasaltoan eta mutilek futbolean aritu nahi izango dutela uste izatea.

• **Hizkuntzaren erabilera berrikustea,** femeninoaren eta maskulinoaren eta generikoen erabilera gramatikala txandakatuz:

- **Generikoak erabiltzea:** ikasleria/ikasleak, irakasleria/irakasleak…
- **Genero bikoitza erabiltzea:** maisu-maistrak, neska-mutilak, gizon-emakumeak, aita-amak…
- **Lanbideetan, femeninoa adieraztea:** emakume zientzialaria, presidente andrea, epaile andrea, neska dendaria...

Hezkidetza eta Garapen Jasangarrirako Helburuak

Ez dago gizarte zinez eraldatzailerik genero-berdintasuna harremanen erdigunean ezartzen ez duenik. Garapen Jasangarrirako Helburuek zorrotz begiratzen diote indarkeriaren aurkako borrokari, eta genero-berdintasuna nahiz emakumeen eta nesken ahalduntzea funtsezko osagaitzat hartzen dituzte garapen jasangarria erdiesteko, zehazki, 5. GJHk (Genero-berdintasuna), bai eta 4. GJHk (Kalitatezko hezkuntza), 10. GJHk (Desberdintasunak murriztea) eta 16. GJHk (Bakea, justizia eta instituzio sendoak) ere.

Glosarioa

Sexua
Gizon eta emakume gisa jaiotzen diren pertsonen ezaugarri fisiko eta biologikoak dira. Ezaugarri nabarmenena dugu ugaltze-aparatua (genitalak): emakumeek bagina dute eta gizonek zakila.

Generoa
Gizarte- eta kultura-esparruan eraikitako ezaugarri sozial, kultural, politiko, psikologiko, juridiko eta ekonomikoen multzoa, gizarteak pertsonei modu bereizian esleitzen diena, gizon eta emakumeen berezko ezaugarri gisa.

Genero-rolak
Pertsona bakoitzari igartzen zaion generoari atxikitako jokabide-arauak.

Genero-estereotipoak
Gizonek eta emakumeek dituzten edo, ustez, eduki beharko lituzketen atributu edo ezaugarriei edo, bestela, bi-biek betetzen dituzten edo bete beharko lituzketen eginkizun sozialei buruzko iritzi edo aurreiritzi orokortua.

Zisgeneroa
Jaiotza-sexua eta sexu-identitatea bat datozkion pertsona.

Emakumeen gorputza gauzatzat hartzea
Emakumeak sexu-objektuak bailiran irudikatzea edo tratatzea, haien ezaugarri eta trebetasun intelektual edo pertsonalei muzin eginda, eta kontsumo-tresna edo ondasun hutsen parekotzat hartzea. Indarkeria sinbolikoa da.

Genero-arrakala
Gizonen eta emakumeen arteko posizio, baliabide eta botere mailen desberdintasunean datza. Emakumezkoen tasaren eta gizonezkoenaren arteko kenketa eginda kalkulatzen da. Aldea zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta hurbilago egongo gara berdintasun-egoeratik.

Lansaio bikoitza
Emakume askok etxeko lanetan eta pertsonen nahiz senideen zaintzan eta, bestetik, merkatu formalean edo ez-formalean egiten duten ordaindutako lanean emandako denbora luzea salatzen duen adierazpena.

***Manspreading* (hankazabalkeria):**
Gizon batzuek izan ohi duten jarrera jesarleku publiko batean jesartzen direnean, hankak nabarmen zabalik dituztela, pertsona bati dagokion lekua baino handiagoa hartzen dutela. Gizonen lekua handitu eta emakumeena txikitzeko joeraren erakusgarria da.

***Mansplaining* (gizona azaltzen)**
“Man” (gizona) eta “explaining” (azaltzen, argitzen) hitzak elkartzetik sortutako terminoa, gutxi gorabehera, “gizon argitzailea”. Terminoa erabiltzen da gizon batek emakume baten mintzaldia eteten duenean gai bati buruzko azalpenak eman nahian, modu ‘adikorragoan’, hizpide darabilten gai horren inguruan, gizona jantziagoa delakoan, inolako frogarik gabe, solaskidea gutxietsiz generoa dela eta. Rebecca Solnit idazle estatubatuarrak zabaldu zuen terminoa.

Hizkera barneratzaile edo inklusiboa

Lexiko neutroa erabiltzen duen hitzezko edo idatzizko adierazpen oro, edo, bestela, maskulinoa eta femeninoa, biak, nabarmentzen dituena, maskulinoaren orokortzea saihestuz emakumeak eta gizonak agertzen diren egoera edo jardueretan.

Soldata-arrakala

Emakume batek batez beste irabazten duena gizon batek batez beste irabazten duenaren aldean. Gizonen aldeko kopurua areago islatzen da lansari osagarrietan oinarrizko soldatan baino.

Genero-identitatea

Gizabanako batek bere generoari buruz duen pertzepzio subjektiboa, sexu-ezaugarri biologikoekin bat datorren gorabehera.

Sexuaren araberako lan-banaketa

Gizarte bakoitzak daukan lana banatzeko modua gizonen eta emakumeen artean, sexu bakoitzarentzat egokitzat jotzen diren genero-rol ezarrien arabera. Zereginen gizarte-banaketa sexu biologikotik abiatzen da, eta bitan banatzen da: lan produktiboa eta lan erreproduktiboa; ikuspegi horretan funtsaturik, gizonei eremu publikoa esleitzen zaie (lan produktiboa, ordaindutakoa), eta emakumeei eremu pribatua (ugaltze-lana, zaintze-lanak). Guztiz barneratutako gizarte-eraikuntza da, halako moldez non egiazkotzat jotzen baita ohiturazko eginkizun edo rolak bat datozela gizonen eta emakumeen izaerarekin eta gaitasunekin.

Patriarkatua

Gizonezkoek boterea duten gizarte-antolaketa. Gaur egun, gure gizartean, gizonezkoek dute botere osoa: botere politikoa, finantzarioa, ekonomikoa, kulturala eta soziala. Gizonak hartzen ditu erabakiak, eta gauza guztien neurria da: hizkera maskulino generikoan egituratzen da, enpresetako eta politikako botere eta ardura handiko karguak gizonen esku daude, sexuaren eraikuntza soziala gizonezkoen plazer sexuala asetzera bideratuta dago, familiak familiaburu gizonezko baten inguruan egituratzen dira (duela gutxira arte, gizonak bakarrik ematen zion abizena familiari).

Feminismoa

Emakumeen eta gizonen arteko eskubide-berdintasuna galdatzen duen gizarte-mugimendua. Feminismoa, gaur egun, pentsamendu-ildo bat da, mugimendu eta ideologia politiko, kultural eta ekonomiko batzuk biltzen dituena, genero-berdintasuna eta gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanen eraldaketa lortzeko funtsezko helburuarekin. Ildo horretan, mugimendu feministen lorpen batzuk hauexek ditugu, besteak beste, herritarrei eta demokraziari atxikitako balio askoren artean: hezkuntzarako sarbidea, botoa emateko eskubidea, emakumeen sexu- eta ugaltze-eskubideen babesa.

Karga mentala

Egunerokoaren plangintza egiteko, antolatzeko eta etxeko erabakiak hartzeko egitekoa, oro har, emakumeek hartzen dutena emaitza jakin bat lortzeko. Horren ondorioz, pentsamenduz, oroigarriz eta eginkizunez beteriko bizkar-zorro edo motxila astuna, lanarekin, etxearekin, familiarekin eta lagunekin lotutakoa, eraman behar izaten dute soinean emakumeek, eta horrek estresa eta antsietatea areagotzen die.

Bideo iradokitzailea

IRAKASLEENTZAT:

Genero-berdintasunaren inguruan hezi. Marina Subirats, soziologoa. Aprendemos Juntos. 2018ko ekaina
https://www.youtube.com/watch?v=gl6c1kLrJnU&ab_channel=AprendemosJuntos

“Panpinak neskentzat eta robotak mutilentzat?” Munduko BBC, 2017. Genero-estereotipoek zer jostailu hautatu erabaki dezaketela frogatzen duen BBCren esperimentua.
https://vimeo.com/460856521

IKASLEENTZAT:

Historian nabarmendu ziren emakumeak. Draw My Life gaztelaniaz. 2019ko martxoa
https://www.youtube.com/watch?v=xTVuVK8k0ig&ab_channel=DRAWMYLIFEenEspa%C3%B1ol

“Superlola”. Malilla andrea, hezkidetzako ipuinak. Emakumearen Andaluziako Institutua. 2014ko otsaila.
Bideoa:
https://www.youtube.com/watch?v=LVAfqiVM9qw
Ipuina eta gidaliburu didaktikoa:
https://www.observatoriodelainfancia.es/ficherosoia/documentos/4213_d_SuperLola.pdf

WEBGRAFIA:

“Hezkidetza eta aniztasunaren kudeaketa ikasgelan. Lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleentzako txostena”. Mugarik gabeko Hezkuntza; Fil a l’agulla. 2013ko azaroa.
http://www.educatolerancia.com/wp-content/uploads/2016/12/maquetacion-castellano.pdf

“Hezkidetza”. Andaluziako Junta, Emakumearen Andaluziako Institutua. Berdintasun eta Gizarte Politiken Kontseilaritza. **http://www.juntadeandalucia.es/institutodelamujer/index.php/areas-tematicas/coeducacion**

Irakurle txikien kluba “Hezkidetzako 20 ipuin berdintasunaren alde”, 2020ko martxoa.
http://www.clubpequeslectores.com/2016/03/cuentos-igualdad-coeducacion.html

Komunikazio barneratzailearen gidaliburua mundu berdinkideagoa lortzeko. Bartzelonako Udala.
https://ajuntament.barcelona.cat/guia-comunicacio-inclusiva/es/

«Argitalpen hau Nazioarteko Garapenerako Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) finantza-laguntzaz egin da, "Mundu bat, 17 erronka. Agenda 2030 eta GJHak hezkuntza-komunitatera hurbiltzen". Bertako edukiak Vicente Ferrer Fundazioaren erantzukizunpekoak dira eta ez dute, nahitaez, AECIDen iritziarekin bat etorri behar».